

UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Laneko arriskuen prebentzioa

Prebentzio politika

Urola Kostako Udal Elkartearen prebentzio plana
Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen
2015-03-24ko bilkuran.

Plan horrek jasotzen duen prebentzio politika dator ondoren.

Hitzaurrea

Erakunde publikoek eta enpresek zenbait betebehari egin behar diete aurre beren jarduerak zuzentzean, eta laneko arriskuen prebentzioa funtsezko betebehari horietako bat da. Ez gara arauak betetzeaz bakarrik ari, benetako konpromisoaz baizik; laneko arriksuarekiko lan-kultura sustatu nahi dugu, prebentzioa erakundearen funtzionamendua eta kudeaketa zuzentzen duten arauetan sartzen duen lan- kultura.

Gai horri dagokionez, Urola Kostako Udal Elkarteak konpromiso sendoa izan du beti. Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak onartu berri duen Laneko Arriskuen Prebentzio Plana konpromiso horren emaitza da. Planak buru ematen dio aurreko ekintza askori eta politika hori erakundearen eguneroko funtzionamenduan barneratzea sustatuko du. Eta parametro oso zehatzak erabiliko ditu horretarako: lan-jarduerak sor ditzakeen arriskuei begirako babes handia ezarri nahi du, prebentzio politika eguneratua abiaraziko du eta osasuna nahiz laneko segurtasuna prozedura guztiak zuzenduko dituzten oinarritzat hartuko ditu. Gainera, Udal Elkarte kide guztiak proiektuan parte hartzea lortu nahi du eta, horretarako, politika berria sustatzeko beharrezko baliabideak definituko ditu eta prebentzioari buruzko prestakuntza eta informazio egokiak jasotzeko erraztasunak emango ditu.

Garrantzitsua da hasieran adierazitakoa berriz aipatzea: geure helburua ez da legea betetzea bakarrik; laneko arriskuen prebentziorako lan-kultura hedatu nahi dugu, erakunde osoa sentiberatu nahi dugu eta jarduera profesionalean arriskuei begirako babes sendoa eskaini nahi dugu, udal elkarteko lana atseginez betetako jarduera izan dadin.



Prebentzio politika

I.1. Prebentzio politikaren xedeak

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN prebentzio politikak prebentzioa haren lanean integratu nahi du eta, horretarako, prebentzioaren kultura sustatzen du. Kultura horrek, indarrean dagoen arautegi aplikagarria betetzeaz haraindi, bizi kalitatea eta lan baldintzak gero eta gehiago hobetzeko aukera ematen du.

Helburu horiekin, **UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO laneko arriskuen prebentzio politika** definitzen da.

Erakundearen Kudeaketa Sistema Orokorra



Iturria: Guía Técnica para la prevención de riesgos laborales en el sistema de gestión de la empresa. Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioa. INSHT.

Horren haritik, Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana funtsezko tresna da bai Udal Elkartearen

prebentzio politika bultzatzeko, bai beharrezko prebentzio ekintzak prebentzioaren kudeaketa sistema baten bidez garatu eta ezartzeko.

Prebentzio plana Udal Elkartearen prebentzio jarduerak bere kudeaketa sistema orokorrean integratzeko eta laneko arriskuen prebentziorako politika ezartzeko tresna gisa prestatu da. Prebentzioaren integrazioa lortzeko bitarteko bat da, hau da, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAN plana ezartzearen emaitza izango den prebentzio sistema finkatzeko.

I.2. Prebentzio politika

Urola Kostako Udal Elkartearen betebeharra da helburu estrategikotzat hartzen dituen alderdi guztietan kalitate osoa lortzea. Badaki jakin, gainera, hori ez duela lortuko Udal Elkarteko langile guztien partehartze eta ahaleginik gabe.

Hori dela eta, Udal Elkartearen helburuetako bat bere langileei lan-baldintzarik egokienak eskaini ahal izatea denez, Udal Elkarteak lan arriskuak prebenitzeko kudeaketa sistema integratu bat abian jartzea erabaki du. Sistema horren helburua da istripu eta lesioak nahiz galera materialak eragiten dituzten laneko arrisku-egoeren aurrean langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.

Laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa sistema integratuak arriskuak atzeman eta ebaluatuko ditu, helburuetan lehentasunak zehaztuko ditu eta neurri zuzentzaileak finkatu eta egikaritzeko ditu. Horrez gain, emaitzen jarraipena egingo du eta horren guztiaren berri eman eta prestakuntza eskainiko du.

Guztiori dagozkigun betebeharrak horiek hiru premisa hauetan oinarrituko dira:

1. Urola Kostako Udal Elkarteak, erantzule eta arduradun nagusia denez, konpromisoa hartzen du sistema horrek behar bezala lan egin dezan ekitaldi bakoitzean behar besteko baliabideak eskaintzeko eta sistemak ezarritakoa salbuespenik gabe betearazteko.
2. Sail eta zerbitzuetako arduradunak izango dira, mailaz maila, sistema abian jarri eta jarraipena egitearen erantzule. Eginkizun hori beren eginkizunen artean txertatuko da.
3. Langileak sistemak ezarritako lan-moldeak betetzearen erantzule izango dira eta sistema hobetzeko iradokizunak egin ahal izango dituzte.

Egunero-egunero esku artean izango dugun eginkizun horretan, enpresa osatzen dugun guztion lankidetzak izango dudalakoan, aldeztu aurretik eskerririk asko.